

2007. urtean Euskal AEn hildako pertsonen batez besteko adina 76,8 urte izan zen, 1990ean baino sei urte gehiago ia

Hilak 19.252 izan ziren, aurreko urtean baino % 4 gehiago.

Hildakoen batez besteko adina 76,8 urtekoa izan zen; 1990ean, aldiz, 71 urtekoa zen, hots, 5,8 urteko gehikuntza jazo da, Eustaten datuen arabera. Sexuka, gizonezkoak 73,1 urterekin hil ziren, batez beste; emakumezkoak 80,9rekin; 100 urte eta gehiagorekin hilak 202; 1997an, 96.

2007an, 19.252 lagun hil ziren Euskal AEn, 10.021 gizonezko eta 9.231 emakumezko. %4ko gehitzea, 2006. urtearen aldean.

Jaiotakoak hilak baino 1.344 gehiago izan ziren; hazkunde begetatiboa positiboa izan zen, 2006an baino txikiagoa, halere Herrialdeka, saldo positiboak izan dira Araban eta Gipuzkoan, 613 eta 953 biztanle gehiago; Bizkaiari dagokionez, aldiz, jaiotakoak hildakoak baino gehiago izan dira (-222).

Haurren heriotza-tasari dagokionez, milako urtebetetik beherako 4,3 hil ziren. Jaioberrien heriotza-tasak, bizitzako lehen 28 egunetan hiltzen direnenak, 66 heriotza zenbatu zituen; jaioberrien heriotza goiztiarrek 46 eragin zituzten, lehen astean gertatzen diren heriotzek; horietarik 16 lehen 24 orduetan. Urtebetetik beherakoen artean, mutiko (47) gehiago hil ziren neskatok (41) baino.

Heriotzen %60, tumoreak eta zirkulazio aparatuko gaixotasunek eraginda


Tumoreek eragin zituzten heriotzen % 30,2, hots, 5.812; zirkulazio aparatuko gaixotasunek %29,7 (5.710), eta hirugarren tokian, urrunago bada ere, arnas aparatuko gaixotasunek %9,6 (1.854).

Heriotza-arrazoiaren banaketa ez da berdina sexuaren arabera; izan ere, gizonezkoen artean, tumoreak zirkulazio-aparatuko gaixotasunen gainetik daude; emakumezkoen artean, lehen arrazoia gaixotasun kardiobaskularrak dira, eta bigarren tokian, tumoreak daude.

Halaber, adinaren arabera ere izan ziren aldeak heriotza-kausetan. Urtebetetik beherakoen artean, heriotza ohikoenak jaiotza-inguruko gaixotasunek eta malformazio kongenitoek eragiten zituzten; 34 urte arte, heriotza-kausa nagusiak kanpokoak izan ziren; 35 urtetik 74 urtera, tumoreak, eta 75 urtetik aurrera, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak.

Kanpo-arrazoiengatik heriotzen artean, zirkulazio-istripuak (145 hildako) eta suizidioak (178) aipatu behar dira. Bi kasu horietan, emakumezkoak baino gizonezko gehiago hiltzen da: 108 gizonezko eta 37 emakumezko, zirkulazio-istripuengatik, eta 129 gizonezko eta 49 emakumezko, suizidioengatik.

1. grafikoa: Heriotzak, kausaren eta sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT

1. taula: Heriotzak sexuka, kausaren arabera

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kop.	%	Kop.	%
Kausa guztiak	10.021		9.231	
Gaixotasun infektioso eta parasitarioak	214	2,1	181	2,0
Tumoreak	3.629	36,2	2.183	23,6
Guruin endokinoetako, elikaduraren eta metabolismoaren gaixotasunak	241	2,4	356	3,9
Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	271	2,7	604	6,5
Nerbio-sistemako gaixotasunak	356	3,6	620	6,7
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	2.691	26,9	3.019	32,7
Arnas sistemako gaixotasunak	1.034	10,3	820	8,9
Txegoste-sistemako gaixotasunak	557	5,6	433	4,7
Sistema genitourinarioko gaixotasunak	199	2,0	199	2,2
Zantzu, zeinu eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak	189	1,9	372	4,0
Kanpoko heriotza-arrazoiak	502	5,0	232	2,5
Beste batzuk	138	1,4	212	2,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp